

neten historiako lehenengo *girl*-a dela esaten da. 1931. urtean, ama hil zitzaion, eta, ondorioz, gehiago hondoratu zen estufazienteen zuloan. Bi urte geroago, kartzelatu egin zuten iruzur egiteagatik eta drogak edukitzeagatik. Espetxean nabarmen argaldu zen: bulimia zuen, eta 35 kilo baino ez.

Dean Paul garaiko hizki-mizkien kronisten jomugan izan zen: «goi klaseko drogazalea» izendatu zuten. Michael Wishart pintoreak esan zuen festa batean ikusi zuela xiringa bat garbitzen loreontzi bateko urarekin. Zurrumurruek albo kalteak. 52 urte zituela hil zen, gaindosiak jota.

### Glamour antifaxista

Aita aristokrataren eta ama aberatsaren alaba bakarra izan zen Nancy Cunard britainiarra (1896-1965). Amak, Maud Cunardek, goi klaseko festa jantziak ontzen zituen etxean; beraz, musikariak, idazleak eta artistak ohikoak zitzazkion Nancyri txikitatit. Hori dela eta, gaztetan piztu zitzaion literatur zaletasuna. Gerra Handiaren ostean, Londresen finkatu zen, bai eta gazte bohemio zurruteroekin nahastu ere. Era berean, poesia idazten hasi zen. 1920. urtean. Parisko gautxori entzutetsu

## Eta maitasunaren iraultza?

### Irati Majuelo

**I**az ekarri zituen argitara Literatura Unibertsala sail oparoak Aleksandra Kollontai iraultzaile ezagunaren hiru ipuin. Obra literarioa ez da boltxebikearen lanik ezagunena izan idatzi zituen artikulu eta saiakera politikoen aldean, eta are gutxiago Errusiar Iraultzan zein ondorengo gizarte komunistaren eraikuntzan izan zuen parte hartzea aintzat izanik. Gainera, literatur lanok isilpean geratu ziren 1927tik aurrera, bere saiakera teorikoak ere hauspotzeari utzi ziotenean. Alabaina, idaztea maite zuen betidanik eta herritarrengana iristeko zuen potentzialitateaz jakitun, iraultzarekiko kezka eta miresmenak islatu nahi izan zituen literaturaren bidez, Kollontai *ideien idazle* izan nahi baitzuen.

*Amodioa hiru belaunalditan, Ahizpak eta Vasilisa Malygina* ipuinek iraultzailearen konbizio

nagusiak biltzen dituzte. Amodioa da istorioen ardatza hirurotan, baina garaiko maitasun eleberrien kontrara, maitasun ezinezkoie edota ezkontza-adulterioei ihesi, sentimendu horren jatorria eta ibilbide ezin igarritzak aztertzeko erabiltzen du Kollontai literatura. Maita daiteke pertsona bat baino gehiago aldi berean? Sexurik izan daiteke maitemindu gabe? Gailen dakio-



### 'Erte langileen amodioak'

**Egilea:** Aleksandra Kollontai.

**Itzultzailea:** Aroa Uharte.

**Argitaletxeak:** Igela-Erein.

ke ahizpatasuna gizonetik maitasunari? Sor daiteke kamaraden artean parez pareko amodiorik? Zer egin bihotzak eta idealek bat egiten ez dutenean? Ehun urte aurretik idatzi zituen Kollontai gaurkotasunez zipriztindurik dauden narrazioak.

Lehen bi ipuinak laburragoak dira, idealismotik gertuago daude, eta ondorioz, helburu didaktikoa goa nabari zaie. Bi-biek errepikatzen duten egiturak ere, aholku kutsua iradokitzen du: kargu garrantzitsua duen emakume bati beste baten eskaria iristen zaio, gutun edo bilera modura, maitasunak edo gizonarekiko duen harremanak sorturiko arazo bati irtenbidea elkarrekin topatzeko. Hala, istorio bat beste baten baren kontatuaz, emakumearen oinazeak azaltzen dira, izan familiako emakumeek maitasuna ulertzeko dituzten era desberdengatik, izan senarrak kamaradari errespetua galdu diolako. Emakume berriaren eta moral komunistaren ideiak azaleratuko dira, garaiko beldurrak, tradizioak eta kamaraden arteko parekidetasun nahiak adieraziz, betiere testuinguruan iraultzaren suhartsuna, lanaren zama edota politika

ekonomiko berrien zabalpena daudelarik.

Hirugarren ipuina eleberri labur bat da, aurrekoek baino konplexutasun handiagoa duena traman zein pertsonaien ezaugarritzean. Izan ere, *Vasilisa Malygina*-n kontraesanei heltzen die Kollontai: nola egin ihes maitasun erromantikoaren sustraiei iraultza bete-betean? Hala, aurreko idealizazioetatik urrunduta, jeloskortasunak eta posesioak, gezurrak eta gutxiespenak ugaritzen dira kamaraden artean, izan beharko lukeenaren eta ez denaren arteko tentsioa erakutsiz. Ideal komunisten eta sentimenduen arteko gatazkak gidatzen du ipuina, bai maitasunari dagokionez, bai iraultza garatzeko ezintasunei erreferentzia eginez: burokratizazioa, handinahikeria, emakumeen eta gizonen arteko botere harreman geroz eta agerikoagoak...

Amaitzeko, errusieratik itzulpen bikaina egin du Aroa Uhartek, estiloaren nabardurak eta erregistro aldaketak originaltasun handiz ebatzi baititu, eta hizkera gertuko baina zaindua lortu. Hitzaurreak zein oin-oharrek ere liburuari osotasuna ematen diote, eta itzultzailearen lanari beste garrantzi bat ematen.